

ZARAUZKO HONDARTZAREN INGURUMEN KUDEAKETA

ZARAUZKO UDALA

UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN SAILA

**2023ko Ingurumen
Deklarazioa
(EMAS III)**

2024ko apirilean landua





Zarauzko Udalak jendearen eskura jarri du Ingurumenaren gaineko Deklarazioa, web-orrian eta bulegoetan:

Udal Zerbitzu Teknikoak

(JESN-2009: 84.11 "Herri Administrazioaren jarduera orokorrak")

Zigordia Kalea 13, 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Tf: 943 005159 / Faxe: 943 005 202

helb. el.: brodriguez@zarautz.eus

Harremanetarako pertsona: Begoña Rodriguez Iraeta

Ziurtagiriaren erregistro zenbakia: ES-EU-000021

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	4	4.6 OSASUNA ETA ONGIZATEA.....	13
2. HONDARTZAKO ESPARRU ESTRATEGIKOA	4	4.7 HORNITZAILEEKIN INGURUMEN LANKETA	14
2.1 ZARAUTZ 2030 PLAN ESTRATEGIKOA	4	4.8 ARRISKUAK ETA AUKERAK LANTZEKO EKINTZAK.....	15
2.2 HONDARTZAREN TESTUINGURUARI BURUZKO UDAL BARNE HAUSNARKETA	5	5. INGURUMENAREN ARLOKO LEGEZKO BETEKIZUNAK	16
2.3 HONDARTZAREN IKUSPEGIA ETA ERRONKAK	5	
2.4 INGURUMEN KUDEATZEKO SISTEMAREN IRISMENA	6	6. ANEXOAK	18
2.5 INGURUMEN POLITIKA:	6	6.1 ASPEKTU-METODOLOGIKOAK	18
UDAL KONPROMISOA HONDARTZAREN INGURUMEN KUDEAKETAN	6	6.2 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK ETA INGURUMENAREN ARLOKO JOKABIDEA EZAGUTZEKO OINARRIZKO ETA SEKTOREKO ADIERAZLEAK.....	19
3. INGURUMEN KUDEATZEKO SISTEMA	7	6.3 2023eko PROGRAMA	22
3.1 SISTEMAREN EGITURA.....	7	6.4 INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAREN IZENA ETA EGIAZTATZE-ZENBAKIA, ETA BALIOZTATZEAREN DATA ...	23
3.2 HONDARTZAREN KUDEAKETAREN ARDURADUNAK....	8		
4. 2023.URTEKO INGURUMEN PORTAERA	8		
4.1 2023. URTEKO PLANIFIKAZIOA	8		
4.2 HONDAKINAK.....	9		
4.3 URA	10		
4.4 ENERGIA.....	11		
4.5 BIODIBERTSITATEA	12		

1. AURKEZPENA

Zarauzko hondartza denon altxorra da, ia bi kilometro luze dituen eta itsasora zabalik dagoen leku aktibo eta dinamikoa. Ekialdeko dunak eta padurak babestuta daude. Zarauzko Udalak badaki hondartza babestu behar den baliabide natural eta ekonomikoa dela eta, horregatik, hondartzaren kutsadurari aurrea hartzeko eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzeko konpromisoa hartu du.

Bide horretan, ingurumena kudeatzeko sistema ezarri zen 2004 urtean, ISO 14001 nazioarteko arauaren eta EMAS Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoriako arauaren arabera (Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1221/2009 Erregelamendua (EE), erakundeek ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioan (EMAS) borondatez parte-hartzeari buruzkoa eta ondoren izan diren aldaketak).

URTEETAKO LANAREN EMAITZA

Urte hauetan zehar, Udalak **baliabide** eta **esfortzu** asko egin ditu **hondartzaren ingurumen kudeaketa hobetzeko**. Horri esker, esparru askotan hobekuntzak lortu dira, hala nola, herritarren sentsibilizazio mailan, biotopoko kontserbazioan, hondartzako hondakinen bereizketan eta bilketan...

Dena dela, asko dago egiteko oraindik ere!!.

2. HONDARTZAKO ESPARRU ESTRATEGIKOA


2.1 ZARAUZ 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

Udalak **“Zarauz 2030 Plan estrategikoa”** onartu du. Plan horrek 2030 urteko Zarauz irudikatu du eta horretara iristeko erronkak eta norabidea zehaztu ditu, beti ere herriaren garapena jasangarria izango dela bermatuz.



Plan horrek eragina du, ezinbestean, hondartzako Ingurumen Kudeaketa Sisteman. Horregatik, testuinguru hau hausnartu dugu eta lotura ikusi dugu Plan horren eta IKSren artean, bereziki 29 ekintzetan,.

Jarraian, hautatutako 29 ekintzak Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera nola banatzen diren zehaztuko dugu:



2.2 HONDARTZAREN TESTUINGURUARI BURUZKO UDAL BARNE HAUSNARKETA

2018ko urte hasieran, hausnarketa abian jarri genuen eta Zarauzko hondartzaren ikuspegia eta erronkak definitu genituen (ikusi ondoko orria). Geroztik, 2020ko pandemia zela eta, berriro egin genuen hausnarketa hori. Nahiz eta gaur egun pandemia garaia ia ahazten ari garen, garai hartako hausnarketa oso baliagarria dela uste dugu eta aurtengo adierazpenean gogoraraztea aberasgarria da.

Hauek dira, gizartearen egoeraren aurrean, udal teknikariek mahai gainean jarritako hainbat ideia:

- Pandemiak **gizartearen onena eta txarreka bistaratu zituen**: jendearen laguntzeko prestutasuna eta gizartearen ezkutuko ekonomiaren errealitatea.
- Pandemiak eztabaida sortu zuen, **gaitzaren jatorrian naturan eragindako desorekak** izan duen garrantziaz.
- Konfinamenduak bistaratu zuen **natura lasai uztearen garrantzia**. Garai horretan, biotopoan inoiz baino hegazti gehiago ikusi ahal izan ziren.
- **Hondartzako aforoa mugatu zen**, ordurarte pentsaezina zena.
- Egoera hark azaleratu zuen **Partehartze Komunitarioaren** premia eta, hori, hondartzaren kudeaketara ere ekar daiteke.
- **Gertuagoko turismoa** izan zen 2021 urtean ere, eta ikerketek azaldu zuten destinoa aukeratzeko orduan, **lekuaren "identitateari" garrantzi handia** ematen zaiola.
- **Teknologia berriek indarra hartu zuten**, adibidez hondartzako informazio Appa.
- Ekitaldiak ikusmiran egon ziren eta horrek ekarri zuen **udal barruko sailen elkarlana**, ekitaldiak non, nola eta noiz baimentzeko.
- **Kulturak gure gizartean duen lekuaren inguruan hausnartzeko** balio izan zuen pandemiak eta merezi duen lekua eman beharra azaleratu zuen.
- **Herrian bertan duguna gehiago baloratzen ikasi genuen**, besteak beste, hondartza aparta .

2.3 HONDARTZAREN IKUSPEGIA ETA ERRONKAK

Ikuspegia: nolako da nahi dugun hondartza?

Zarauzko hondartza guztiontzat irekia eta prestatua dago. Lasaia eta segurua da, eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzen ditu. Gune garrantzitsua da ekintza aktibo eta osasuntsuak egiteko eta guztion aisialdirako plaza izateko.

Hondartzak natura balio handia du. Herritarrek balio hori ondo ezagutzen dute eta aktiboki babestu eta zaintzen dute.

Klima aldaketaren inpaktuei aurre egiteko, beharrezko neurriak hartuta daude eta, ondorioz, muturreko itsas gertakarien aurrean kalteak gutxitu dira.

Zarauzko hondartza zarauztarren nortasunaren erakusleia da, elkarbizitzarako gunea, euskara entzun eta tokiko kultura arnasteko eremu paregabea.

Erronkak: adostutako irudia lortzeko, zein erronka ditugu aurrean?

1. Hondartzaren balio naturala babestea eta klima aldaketaren inpaktuak gutxitzeko udalerrria egokitzea.
2. Hondartzako erabilera guztien arteko oreka lortzea, kalitatezko zerbitzuak eskainiz eta segurtasuna bermatuz.
3. Hondartza Zarauzko nortasunaren agertokia izatea eta gizartearen balioak lantzeko eremu bilakatzea.
4. Nola? Begirada ireki eta berritzailearekin lan eginda.

2.4 INGURUMEN KUDEATZEKO SISTEMAREN IRISMENA

Ingurumen Kudeaketarako Sistemak Udalaren ardurapean dauden Zarauzko hondartzako jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei eragiten die.

Hondartza eta itsasertzeko pasealekua hartzen ditu sistemak, eta kanpo gelditzen dira pasealekuko sarbideak, portua eta kafetegietako mahaiak.

Mugikortasun arloa ere Sistema honen irismenean txertatu zen, bereziki hondartzara datozenek erabiltzen duten garraioa eta horrek sortutako ingurumen inpaktua.

Goian aipatutako jarduerak, produktuak eta zerbitzuak honako hauek dira: hondartzako garbiketa (Foru Aldundiaren eskumena da, eta Udalari haiekin koordinatzea dagokio) eta itsasertzeko pasealekuaren garbiketa, kabina kolektiboen zainketa, toldoak eta aulkiak kudeatzea, salbamendu eta sorospen-zerbitzuak, instalazio guztien mantentze-lan orokorrak, hondakinen gaikako bilketa eta herritarren segurtasuna. Bainatzeko uren eta hondartza inguruko eremuaren kontrol sanitarioa Eusko Jaurlaritzaren eskumena izan arren, Udalak jarraipena egiten du.



Oraingoz, Zarauzko Udalak ez du aurreikusten erakundeko beste zerbitzu batzuetara zabaltzea Ingurumen Kudeaketa Sistema.

2.5 INGURUMEN POLITIKA:

UDAL KONPROMISOA HONDARTZAREN INGURUMEN KUDEAKETAN

Zarauzko Udalak ondorengo konpromisoak hartu ditu, hondartzarako adostutako ikuspegi estrategikoarekin bat egiteko eta definitutako xedeak lortzeko, beti ere Ingurumen Kudeaketa Sistemaren baitan adostutako irismenaren barruan:

INGURUMEN POLITIKA

UDAL KONPROMISOA HONDARTZAREN INGURUMEN KUDEAKETAN

Ingurumena babesteko, Udalak bere kudeaketa etengabe hobetzeko lan egingo du, legezko betebeharrak eta testuingurua kontuan edukita.

Konpromiso hauek hartu ditu:

- Hondartzako balio naturalak babestea.
- Hondartza kalitatezko zerbitzuez hornitzea, beti ere baliabideak modu eraginkorrean erabilia.
- Hondartzaren erabilera eta gozamenaren ondorioz gauzatzen diren aktibitateek sortzen duten inpaktua ezagutu, kontrolatu eta posible den neurrian, murrizteko bitarteko eta baliabideak jartzea.
- Klima aldaketaren eraginez gerta litezkeen inpaktuak ezagutu, jarraipena egin eta beharrezko neurriak hartzea.

Horretarako, Udalak hondartzako erabiltzaileak eta bertan lan egiten duten pertsonak entzun eta beraien iritzia kontutan hartuko du, beraien konplizitatea eta parte-hartze aktiboa sustatzeko tresnak martxan jarrita.




3. INGURUMEN KUDEATZEKO SISTEMA

3.1 SISTEMAREN EGITURA

Udalak Ingurumena Kudeatzeko Sistema erabiltzen du, hondartzako zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzeko, legeak eskatutakoa zorrotz betetzeko eta zerbitzu horiek arlo guztietan zehaztutako politiketara egokitzen direla ziurtatzeko.

Ingurumen Kudeaketarako Sistemak honako hauek barne hartzen ditu: antolamendu-egitura, erantzukizunak eta eskuliburuan oinarritutako agiriak.

Modu eskematikoan, Erakundeak ingurumenaren arloan duen jokabidea etengabe hobetzeko jarraitzen duen eskema hau da:




Erakundeak eskuliburuan oinarritutako dokumentatutako informazioa du sistemaren oinarri gisa.

<p>PLANIFIKATU</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arriskuak eta aukerak identifikatu eta aztertu. - Ingurumen alderdiak eta horiekin lotutako ingurumen inaktuak identifikatu, bizi-zikloaren ikuspegitik. - Erakundeak bete beharreko legeko baldintzak eta beste baldintzak batzuk ezagutu. - Ingurumen kudeaketa hobetzeko helburuak eta xedeak zehaztu. - Zereginaren adierazleak finkatu. 	<p>EGIN</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kudeaketa egiturak sortu eta funtzioak eta erantzukizunak banatu. - Baliabide egokiak eskaini. - Langileak prestatu, eta kontzientzia hartzen dutela eta dituzten eskumenez jabetzen direla bermatu. - Barneko nahiz kanpoko komunikazio bideak antolatu. - Dokumentazioa garatu eta zaindu. - Dokumentuen kontrola ezarri eta bideratu. - Eragiketen kontrola ezarri eta zaindu. - Larrialdiko egoeren aurreko prestasuna eta gaitasuna bermatu.
<p>JOKATU</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuzendaritzak Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren berrikuspenak egin aldian-aldian. - Hobekuntzak zehaztu. 	<p>EGIAZTATU</p> <ul style="list-style-type: none"> - Etengabeko jarraipena eta neurketa egin. - Legezko baldintzak eta aplikatu daitezkeen beste baldintza batzuk bete diren ebalatu. - Adostasun ezak identifikatu, eta ekintza zuzentzaileak nahiz prebentiboak egin. - Erregistroak kudeatu. - Aldian-aldian barne ikuskaritzak egin.

3.2 HONDARTZAREN KUDEAKETAREN ARDURADUNAK

Zarauzko Udala, bere Zerbitzu Teknikoen bidez arduratzen da udal izaerako eskumenak kudeatzeaz.

Hauek dira kudeaketa sisteman parte hartzen duten eragileak:



4. 2023.URTEKO INGURUMEN PORTAERA

4.1 2023. URTEKO PLANIFIKAZIOA

Ingurumen kudeaketarako sistemak zehaztuta ditu zein arlo izan behar ditugun kontuan (ura, energia, zaborrak, zarata...), eta sistemak berak adierazten digu, arlo hauen urteroko emaitzen arabera, horietatik zein diren bereziki landu beharrekoak. Azken hauei “ingurumen alderdi esanguratsuak” deitzen zaie. (Informazio gehiago Eranskinean)

Aurreko urteko emaitzen azterketak ondorengo “alderdi esanguratsuak” eman zituen, 2023. urtean bereziki kontuan izateko.

BIZI-ZIKLOAREN FASEA	INGURUMEN-ALDERDIA ESANGURATSUAK	IZAERA
Bizitzaren amaiera	Sareko Ur Kontsumoa	Zeharkakoa
Bizitzaren amaiera	Energia elektrikoaren kontsumoa hondartza eta pasealekuan	Zeharkakoa
Bizitzaren amaiera	Gaika bildutako hondakinak pasealekuan	Zeharkakoa
Zerbitzua ematea	Biodibertsitatean kalteak.	Zeharkakoa

Hortaz 2023. urtean ahalegin berezia egin behar genuen arlo horiek hobetzeko.

4.2 HONDAKINAK

INGURUMEN PORTAERA



Itsas pasealekuan hondakinak gaika biltzeko edukiontzi bereziak daude. Horietan 5 frakzio bereiz daitezke: ontzi arinak, papera, beira, organikoa eta errefusa.

2023. urtean ez da hondakin arriskutsurik sortu, hortaz, atal honetan, hiri hondakin ez arriskutsuak soilik aztertu ditugu.

Sortutako hondakinak Urola Kostako Udal Elkarteko bilketa zerbitzuak jasotzen ditu eta beraiek egiten dute kopuruen kontaketa.

Hala ere, zailtasunak ditugu datu horiek biltzeko. Errefusa eta ontzi arinen datuak soilik ditugu, izan ere, papera jasotzen duen gaur egungo kamioiak ez du hondakinak pisatzeko aukerarik eta, beirari dagokionez, itsas pasealekuan oso gutxi biltzen denez, ez da edukiontzi oso bat betetzen eta, beraz, ez dugu hustuketa datu zehatzik. Hala ere, espero dezagun 2024ean, datu hobeak eskuratu ahal izatea.

2023an datu hauek jaso ditugu:

Ontziak	Errefusa
3.574 Kg	18.412 Kg

Frakzio organikoa oraindik oso gaizki bereizten dute erabiltzaileek eta, horregatik, ezin izan dugu konposta egitera bideratu. Frakzio guzti hori errefusa da. Erronka handia da erabiltzaileak heztea frakzio organiko hori garbia izatea lortu arte.

HONDAKINEN INGURUMEN INPAKTUAK

Hondakinen sorkuntzatik datozen inpaktuak, besteak beste, hauek dira:

- Lehen gaien gehiegizko kontsumoa.
- Hondakinen kudeaketaren ondoriok, bai zabortegietan edo erraustegietan. (hondakinen garraioa, lurzoru okupazioa, paisaian eragina, usainak,

izurriteak, lixibiatuen eragina, erraustegietako airearen kutsadura, bigarren mailako hondakinen kutsadura...)

ZER AURREIKUSI GENUEN 2023. URTERAKO?

- Itsas ertzeko pasealekuko edukiontzi handiak berritzea.
- Hondartzako sarreretan jarritako paneletan, hondakinak behar bezala kudeatzeko mezuak zabaltzea.
- “Kerik gabeko hondartza” kanpainen parte hartzea, besteak beste, zigarrokinak murrizteko balio dezan.
- “Plastikorik gabeko hiria” kanpainarekin jarraitzea. Edateko urarentzako pitxarrak banatzea
- Mikroplastikoen bilketa hondartzan

**KERIK
GABEKO
GUNEAK**



- Dunan eta paduran hondakinak biltzeko jarduera egitea herritarren parte hartzearekin. Herriko Arkamurka Natur Taldeak Iñurritzan hezeguneko plastiko eta zaborren bilketa antolatu du.
- Herriko errekek garbitzea, itsasora eta hortaz hondartzara hondakin gutxiago iristeko

ZER LORTU DUGU?

Ekintza horietatik, “Kerik gabeko hondartzako” kanpaina izan ezik, gainontzekoak burutu dira. Kanpaina hori 2024 urtean egitea aurreikusi du Udalak.

ZER EGINGO DUGU 2024 URTEAN

Aurreko urteko ekintzekin jarraitzea proposatzen dugu, alegia:


“Kerik gabeko hondartza” kanpainen parte hartzea, besteak beste, zigarrokinak murrizteko balio dezan; “Plastikorik gabeko hiria” kanpainarekin jarraitzea; Mikroplastikoen bilketa hondartzan; Dunan eta paduran hondakinak biltzeko jarduera egitea herritarren parte hartzearekin; Herriko errekek garbitzea, itsasora eta, hortaz, hondartzara hondakin gutxiago iristeko.

4.3 URA

INGURUMEN PORTAERA

Aspaldidanik, hondarretan dauden dutxetako ura eta hankak garbitzeko erabiltzen dena, lur azpiko akuiferotik hartu izan dugu. Horrela, erabili ondoren, berriro ere akuiferora itzultzen genuen.

Baina 2017. urte hasieran, lur azpiko ur horren analisiak egin genituen Osasun Sailak eta Udalak, eta kutsadura mikrobiologikoa egon zitekeenaren susmoa piztu zen. Horregatik, 2017a geroztik, ez dugu lur azpiko ur hori erabili hondartzan eta dutxak eta hankak garbitzeko iturriak herriko sareko ur tratuz hornitu ditugu.



2023an kontsumoa 11.490 m³ izan da, aurreko urtekoa baino baxuagoa.

Lur azpiko uren kontsumoak inpaktu hauek ditu: akuiferoan eragina, ura gazitzea, akuiferoaren dinamika desorekatzea...

Herriko sareko ur kontsumoak zera dakar: Ibilbide naturaletik ura ateratzea, energia xahutzea ur hori garraiatzeko, tratamendu kimikoak egitea...

ZER AURREIKUSI GENUEN 2023. URTERAKO?

- Hondartzako kontadoreen jarraipen zorrotza egitea, ur ihesak ekiditeko.
- Golf zelaian araztegiko urak erabiltzeko aukera aztertzea.
- Hondartzako dutxetan eta hankak garbitzekoan, lur azpiko urak erabiltzeko aukerari berriro heltzea.

ZER LORTU DUGU?


Hornidura sarean aurreikusiak zeuden konponketak amaitu dira.

Golf zelaian araztegiko ur tratatuak erabiltzeko aukera aztertu dute, baina ondorioztatu dute gaur egun ez lukeela beteko uren arloko araudia, Beraz, oraingoz, baztertu egin da.


Lur azpiko urak erabiltzeko aukerari buruz, ez dugu gauza handirik aurreratu lehengo urteaz geroztik. Dena dela, Udalak ez du etsitzen lur azpiko urak berriro ere erabiltzeko aukerarekin. 2021eko martxoan Osasun sailak ez zuen egoki ikusi ur horiek erabiltzea, baina Udalak jarraituko du gaia aztertzen eta osasun baldintzak bermatzeko neurriak proposatzen.

Azterlan guztiak egin ondoren, Udalaren ondorioa izan zen lur azpiko urak, orokorrean, garbiak daudela eta kutsadura, egotekotan, hornidura sarean izan zitekeela.

Horregatik, udalak uste du instalazioak berriro, urak ultramore izpiekin tratatu eta ur horien kalitatea bermatzeko behar adina kontrol egin ezker, ur horiek erabiltzearen arriskua maila baxuetara jaitsi daitekeela eta, hortaz, erabilgarriak izan daitezkeela dutxetan.



ZER EGINGO DUGU 2024 URTEAN?



Dutxetako eta hankak garbitzeko iturrietan ur kontsumoa murrizteko kanpaina abiarazi.

Hondartzako dutxetan eta hankak garbitzekoan, lur azpiko urak erabiltzeko aukerari berriro heldu.


4.4 ENERGIA

INGURUMEN PORTAERA



Zarauzko hondartzako energia kontsumoaren zatirik handiena argindar saretik dator. Energia elektriko hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren erosketa-zentralaren bidez erosten da eta, kontratuaren arabera, % 100 berriztagarria da.

Ondorengo grafikoan 2023ko uda partean izandako energia kontsumoa adierazten dugu.



Argiteriari dagokionez, kontsumo baxuko sodio baparezko lanparak daude eta fluxua erregulatuta daukate, berezko ahalmena baino potentzia gutxiagoan jarrita daude.

ENERGIA KONTSUMOAREN INGURUMEN INPAKTUAK

Energia elektrikoaren kontsumoaren eragina bereziki energia sortu ahal izateko erabiltzen diren sistemei egotzi diezaiekegu, hala nola zentral termiko, ziklo bikoitzeko edo zentral nuklearrei, eta baita energia honen garraioari ere.

- Berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa.
- Kutsadura nuklearraren arriskua.
- Aldaketa klimatakoarengan eragin nabarmena.
- Garraiorako behar diren lineak duten eragina.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2023. URTERAKO?

- Itsas pasealekuko argiteria LED sistemara aldatzeko kontratazioa bideratzea

ZER LORTU DUGU?

Nahiz eta kontsumoak zerbait jaitsi diren, Itsasertzeko farolak LED sistemara aldatzen ez diren bitartean, zaila da kontsumo horiek nabarmen murriztea.

Energia kontsumoa pasealekuan	
2022. urteko datua	2023. urteko datua
40.282 kWh	39.748 kWh

ZER EGINGO DUGU 2024. URTEAN?

Udala lanean ari da Energia-zerbitzuen enpresa bat kontratatzeko. Kontratu horren baldintza pleguetan zehaztuko du Udalak argiteriari dagokionez zer eta noiz egin beharko den. Aurreikuspena da 2024 urtean bideratzea kontratu hau.

4.5 BIODIBERTSITATEA

INGURUMEN PORTAERA

Biodibertsitate arloak garrantzi handia du Zarauzko hondartzan.

Iñurritza Biotopo Babestua izendatu zuten 1997. urtean, izan ere, bere padura, duna eta labarrek balio handia dute. Era berean, 2004. urtean Europako Natur Guneen sarean, NATURA 2000 sarean, sartu zuten. Gaur egun babesu duen gunearen izendapena Iñurritzako Paisaia Natural Babestua da

Zalantzarik gabe zaindu beharreko altxorra da eremu hau.



Covid-19aren pandemia dela eta, bereziki jarri zen bioaniztasunaren garrantzia mahai gainean. Zientzialari askok azpimarratu zuten, gaitzaren jatorria, hein batean behintzat, naturan sortutako desorekan izan dela eta ahots asko entzun genituen pandemia garaian, bioaniztasunaren garrantzia plazaratu zutenak.

Bestalde, 2023 urtean kezka plazaratu da alga bentoniko toxikoen presentzia dela eta. Dirudenez, maiztasun gehiagorekin eta kopuru handiagoan azaltzen ari dira alga hauek Kantauri itsasoan. Alga hauek masiboki ugaltzen direnean toxinak zabaltu daitezke eta bainatzen ari direnei eragin. Alga hauei, dirudenez, ur geldo eta epelak gehiago gustatzen zaizkie eta, ondorioz, Zarautzen oraingo ez da horrelako gertaerarik izan. Dena dela, erne egon beharko dugu, Foru Aldundiarekin eta Unibertsitatearekin batera, alga horien eboluzioa jarraitzeko. Honen harira, galdera ere sortu da Klima aldaketaren ondorioa izan ote daitekeen alga honen presentzia.

BIODIBERTSITAEAREN GAINEKO INPAKTUAK

- Lurren okupazioa hainbat jarduera egiteko, bereziki golfa.
- Pertsonen eragina, zaratarekin, zapaltzearekin, hondakinekin, txakurrekin...

Pandemiako konfinamenduak egoera berezia ekarri zigun 2020an: hain zuzen ere, airearen kutsadura jaitsi zen (mugikortasuna murriztuta) eta baita zarata ere. Gainera, natur guneean gizakiaren presentzia murriztu zen eta horrek sortu zuen, besteak beste, **Iñurritzan inoiz baino hegazti gehiago ikusi ahal izan zirela.**

Horrek, ikasketa zuzena dakarkigu: naturak eskertu du udaberriko garai horretan gizakiaren presentzia murriztea espazio babestuan eta posible da murrizketa hori egitea. Aurrerantzean ikusi beharko da, pandemia egoerarik izan gabe ere, horrelako murrizketak sustatu behar diren, parez pare jarrita batetik, naturari ekartzen zaion onura eta, bestetik, erabiltzaileei sortzen zaien eragozpena. Hausnarketarako atea zabalik dago.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2023. URTERAKO?

2023rako biodibertsitatea zaintzea “alderdi esanguratsu” izendatu genuen.

Ondorengo ekintzak planifikatu genituen:

- Biotopora bisita gidatuekin jarraitzea, bai ikastetxeekin eta bai herritarrekin
- 2023an EBUaren ibilbidea mantentzeko kontratu berria atera
- Golf inguruko ekosistemen jarraipena egitea
- Biotopoen, bidez kanpoko guneei ez sartzeko kartelak jartzea
- Itsasoko balio naturalak ezagutarazteko CIMASUB itsaspeko zinema zikloa egitea.

ZER LORTU DUGU?

Aurreikusitako ekintza denak burutu dira.

ZER EGINGO DUGU 2024. URTEAN?

Bisita gidatuekin jarraituko dugu. Golf jarduerak ekosisteman duen eraginaren azterketari segida emango diogu. Itsaspeko zinema zikloa, erakusketa eta ikastetxeentzako “txikizikloa” berriro egingo ditugu. Hondartza, duna eta hezeguneko bizidunen egoerari buruzko azterlana egitea aurreikusi dugu, adierazleak sortuta, denboran zehar eboluzioa ezagutzeko.

4.6 OSASUNA ETA ONGIZATEA

BAINURAKO UR KALITATEA

Bainurako uren kalitatea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak neurtu eta kalifikatzen du, eta udalak sorosleen bitartez jakin arazten die hondartzako erabiltzaileei.

Azken lau urtetako udako emaitzen balioespen estatistikoa egin ondoren, bainatzeko uren kalitatearen kalifikazioa ematen du Estatuko Osasun Sailak. Zarautzeko kasuan hau da kalifikazioa:

- Hondartza mendebaldean: BIKAINA
- Hondartza erdi aldean: BIKAINA
- Hondartza ekialdean: BIKAINA



2023. urtean Osasun Sailak 19 egunetan hartu ditu laginak maiatzaren 29an lehena eta irailaren 11ean azkena. Aldiro hiru puntutan hartu dituzte lagin horiek: Iñurritza errekatik 250 m-tara, errekatik 500 m-tara eta sorosleen egoitza parean.

Gai honen inguruan intzidentzia esanguratsua gertatu zen ekainaren 12an, izan ere, eurite oso garrantzitsuen ondorioz, herriko saneamendu sareak gainezka egin zuen hainbat puntutan eta itsasoko urak kutsadura mikrobiologikoa izan zuten. Ondorioz, hondartza, bainurako itxi behar izan zen. Dena dela, hurrengo eguneko emaitzak onak izan ziren eta berriro ireki ahal izan zen.

Gertakari honen harira, udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ondo aztertu dituzte saneamendu sarearen gainezka puntuak. Horrelako gertakariak, bai Zarautzen eta bai gainontzeko herrietan, nahiko ohikoak dira, baina ez horregatik, garrantzi gutxikoak.

Irtenbidea da euri urak ez daitezela joan saneamendu sarera eta, era horretan, sare honek ez dezala gainezka egin erreketara. Horretarako, saneamendu area eta auri uren sarea ondo bereizi behar dira. Kaleak berritzen diren heinean, sareak azterten dira eta isurketa horiek bideratu. Ahalegin horretan jarraituko dugu.

MUGIKORTASUNA: AIREAREN KALITATEA ETA KALITATE AKUSTIKOA

Hiriko **mugikortasun ereduak** garrantzi handia du, bai pertsonen osasunean, bai ingurumenean, bereziki, pertsonen joan-etorrien modalitatearen arabera, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa hobea edo txarragoa izango direlako.

2022an Mugikortasun Plana onartu zuen Udalak. Plan horrek, besteak beste, oinezkoen eta bizikleta bidezko mugikortasunari lehentasuna ematen die. Erronka hauek aipatzen ditu:

- Bidegorri sarea indartu, loturak hobetu, bizikleten aparkaleku gehiago jarri. Hondartzarekin lotuta, bereziki aipatzen ditu Salberdin eta San Pelaio (geltokiak) hondartzarekin lotzeko bideak egokitzea.
- Bizikletentzako bide eksklusiboak kentzea eta erabilera konpartituko eremuak sustatzea eta, horren baitan, Itsasertzeko pasealekuan bizikletaz ibiltzeko aukera berri ere aztertzea.

AISIALDIA ETA ZARATA

Zaratak ere badu eragina pertsonen osasunean eta ingurumenean. 2018an Udalak Zarata Mapa egin zuen eta, ondoren, Giro Soinua Murrizteko Ekintza Plana. Azterlan horiek bereziki trafikoa, trena eta aisialdia aztertu zituzten.

Hondartzan eraginik nabarmenena aisialdiari dagokiona da. Ildo horretan, ostalaritzako terrazatan eta egiten diren kontzertu eta ekitaldietan sortzen da zarata. Horren aurrean hanbat neurri proposatzen ditu Ekintza Planak. 2022an terrazetako ordutegiak zertxobait murriztu ziren eta 2023an sentsibilizazio kanpaina egin zen.

2024ean zarata mapa eta ekintza plan berria egingo dira.



4.7 HORNITZAILEEKIN INGURUMEN LANKETA

Udalak hondartzako kudeaketa egin ahal izateko zenbait lan udal langileekin egiten ditu zuzenean eta beste zenbait berriz, kontratatutako enpresen bitartez.

Azken hauen artean ondorengo zerbitzuak ditugu:

- Hondakinak biltzeko zerbitzua.
- Itsas pasealekuaren garbiketa.
- Sorosle zerbitzua.
- Lorazaintzako lanak
- Kantineko zerbitzuak.
- Aldagelak eta komunak garbitzeko zerbitzuak.

Nahiz eta enpresa hauek udalaz kanpokoak izan, zenbait irizpide barneratu ditzaten ahalegintzen gara.

Horretarako ondorengo tresnak ditugu:



- Enpresa hauek kontratatzeko baldintza oinarrietan zenbait irizpide txertatzea.
- Enpresa hauek proposatzen dizkiguten hobekuntzak baloratu eta eginaraztea.
- Enpresaren jarraipena eta kontrola egitea.

Gaur egun ingurumen irizpideak hauek eskatzen zaizkie enpresei:

ITSAS PASEALEKUAREN GARBIKETAZ ARDURATZEN DEN ENPRESA:

- Kaleak garbitzeko tratatu gabeko ura erabiltzen dute. Horretarako, Vista Alegreko depositutik hartu behar dute ur hori.
- Beraien lana burutzean ahal den zarata gutxien sortzeko ahalegina egiten dute. Horretarako kalea garbitzeko haizea botatzen duten makinak, zarata baxukoak dira eta konpromisoa hartzen dute orokorrean bozinarik ez erabiltzeko.
- Kale garbiketa hasteko goizeko ordua, ordu erdi atzeratu da, leheneko kontratutik gaurkora, orain, 7:00etan hasten dira, 6:30etan hasi beharrean, zarata molestiak murrizteko asmoz.
- Kale garbiketako zerbitzuak, ezarria du ISO 14001 Ingurumen Kudeaketako Sistema. Beraz, sistema horren baitan hartutako konpromisoak betetzen ditu.

SOROSPEN ZERBITZUAZ ARDURATZEN DEN ENPRESA:

- Esleipendunak laguntzen du, Udalak hondartza eta honen inguruarekin lotuta egiten dituen kanpainetan.

ITSAS PASEALEKUKO LORAZAINTZAZ ARDURATZEN DEN ENPRESA:

- Esleipendunak, makinaria ahal den isilenak erabiltzen ditu.
- Ez dute bozina edo bestelako soinu-dispositiborik erabiltzen hirigunean.

KANTINAK KUDEATZEKO ENPRESAK:

- Esleipendunak hondakinak sailkatuta jasotzen ditu.
- Kantina zein komunak garbitzeko erabiltzen dituzten produktuak ingurumenean eragin txikiagoa dute (ekologikoak eta biodegradagarriak dira).
- Esleipendunak ezin dute erabili oro har jendea gogaituko duen zaratarik sortzeko moduko bozgorailu, irrati edo antzeko tresnarik.

4.8 ARRISKUAK ETA AUKERAK LANTZEKO EKINTZAK

2023. urteko PROGRAMAN jasotako ingurumena hobetzeko helburu horiez gain, ARRISKUAK ETA AUKERAK lantzeko jarduketara batzuk ere ezarri ziren.

ZER AURREIKUSI GENUEN 2023. URTERAKO?

Ekintzak hauek aurreikusi genituen:

- Web orriko edukiak egokitzea. Jada martxan dagoen web orri berria egokitzea.
- Informazio Qr kodeen bitartez eskura jartzeko aukera lantzea
- Hondartzako ingurumen kudeaketari buruzko informazio zabaltzea, bereziki EMAS bandera jarrita eta prentsan zabalduta
- GFA-arekin harremana jarraitzea.
- Urban Klima 2050 erkidegoko proiektuan parte hartzen jarraitzea.
- Aldaketa klimatikoari aurre egiteko PLANA bideratzea
- Agenda 20/30ean Aldaketa Klimatikoko irizpideak eta ekintzak txertatzea

ZER LORTU DUGU?

- Udal web orri berria prest dago, baina oraindik edukiak antolatzen ari gara. Qr kodea prestatu eta eskuragarri jartzeko egitasmoa ez dugu oraindik bideratu.
- Udalak mantendu du GFA-arekin harremana, bereziki hondartzako garbiketa koordinatzen eta sentsibilizazio kanpainak bideratzen.
- 2023 urtean jarraitu dugu Urban Klima proiektuan parte hartzen. Oraindik amaitu gabe dago.
- Klima aldaketari aurre egiteko plana lantzen hasia da Udala.



5. INGURUMENAREN ARLOKO LEGEZKO

BETEKIZUNAK

Sistemaren baitan, erakundeak bere jarduerari dagozkion legeko betekizunak ezagutu eta dokumentatu behar ditu. Indarrean dagoen ingurumen-araudi aplikagarria betez (Europakoa, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) eta borondatez sinatutako baldintzak betez jarduten da organizazioa.

Ingurumen alderdiak	Legezko betekizunak
Hondakinak	<p>Zarauzko Hiri Hondakinaren kudeaketa Urola-Kostako Udal Elkarteak egiten du.</p> <p>Hiri-hondakinak kudeatzeko betebeharra:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birziklapenerako edo beste balorizazio-mota baterako bilketa selektiboaren sistemak ezartzea. - Bilketa selektiboaren ezarpenean eta ontzien erabileraren murrizketan partaidetza aktiboa sustatzea. <p>Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena emateko salbu (2002ko uztailaren 10ean idatzia)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sortutako hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileari ematea. <p>Honez gain, modu egokian kudeatu behar dira:</p> <p>Garbiketan jasotako edo sorospen aktibitatean sortutako Osasun-Hondakinak.</p> <p>Hondartzaren kudeaketa aktibitatean sortutako Tresna Elektriko eta Elektronikoen hondakinak eta pila eta bateriak.</p> <p>Hondartza eta pasealekuko berritze eta mantentze lanetatik datozen Eraikuntza- eta Eraispén-Hondakinak.</p> <p>Arau garrantzitsuenak:</p> <p>7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkular baterako.</p>

Itsas-aldea	<p>Itsaso nahiz Lehorreko Jabari Publikoa okupatzeko urteko baimenak izapidetzen dira.</p> <p>Arauk:</p> <p>22/1988 Legea, uztailak 22koa, itsas ertzari buruzkoa. 2/2013 Legea, maiatzaren 29koa, itsasertzaren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa eta Kostaldee buruzko 22/1988 Legea aldatzen duena. 876/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. 668/2022 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Kostaldeen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena.</p>
Urak	<p>Lur azpiko akuiferoa ustiatzeko lagapena. (Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Uren Zuzendariaren ebazpena, 2003ko urtarrilaren 24koa)</p> <p>Kostara zuzendutako isurketen debekua.</p> <p>Arauk:</p> <p>1341/2007 Errege dekretua, urriak 11koa, bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa.</p> <p>1/2006 legea, ekainak 23koa, urari buruzkoa.</p>
Legionelosis	<p>Higieniko-osasun urteko mantentzea kabinetan.</p> <p>Arauk:</p> <p>487/2022 Errege Dekretua, legionella prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun baldintzak ezartzen dituena.</p>
Energia / Mugikortasuna / Airea	<p>Kabinetako ur beroaren galdaren aldizkako berrikuste eta ikuskapenak.</p> <p>Hondartzan eta pasealekuan lan egiten duten ibilgailuen ikuskapen teknikoa eguneratua.</p>

Jasangarritasun energetikoko bete beharrak osatzeko, Udalak Energia Plana egingo du epe laburrean. Bertan jasoko ditu egin beharrekoak eta planifikatuko ditu lehentasunak. Arlo hauek izan beharko dira kontuan:

- Eraikinen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa egin eta horien kontsumo energetikoak kontrolatu.
- Argiteria publikoaren auditoretza energetikoa egin (4 urtetan behin).
- 70 kw-tik gorako potentzia termikoa duten eraikinen auditoretzak egin. (4 urtetan behin).
- Erositako energia elektrikoaren % 100 iturri berriztagarrietatik datorrela bermatu
- Udal Plan Energetikoa egin.
- Udalak jasangarritasun energetikoari eta garraioaren erabilera eraginkor eta jasangarriari buruzko formakuntza eta sentsibilizazio plana egin.
- Hondartzarekin lotutako eraikinek ziurtagiri energetikoak egin.
- Udal mugikortasun plana garatu.
- Ibilgailu berriak ordezeko erregaiekin ibiltzeko aukera bermatu.

Arauk:

1027/2007 Errege Dekretu, uztailaren 20koa, eraikinetako instalazio termikoen erregelamendua onartzen duena. 178/2021 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, aurrekoa aldatzen duena.

Agindua, 2008ko uztailaren 22koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, eraikinetako instalazio termikoen erregelamenduari (EITE) buruzko arauak ematen dituena.

81/2020 Dekretua, ekainaren 30koa, industria-segurtasunari buruzkoa.

920/2017 Errege Dekretua, urriaren 23koa, ibilgailuen azterketa teknikoa arautzen duena.

4/2019 Legea, otsailaren 21koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa

	1/2024 legea otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena
Zarata	Sorosleek erabilitako moto nautikoen eta kanpoko ekintzetan lan egiten duten makinak "CE" markaketa (pasealeku eta hondartzaren garbiketa). Hondartza eta pasealekuko aktibitateen soinu-maila muga betetzea (zarata eta bibrazio udal ordenantza) Arauk: <i>37/2003 legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa</i> <i>Zarata eta bibrazioei buruzko Udal Ordenantza (2015eko irailak 24)</i>
Biotopoa	Biotopoaren garapen, antolakuntza eta ingurumen eta hirigintza kudeaketa. Arauk: <i>40/1997 Dekretua, Iñurritza biotopo izendatzen duena.</i> <i>515/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Eskualde Biogeografiko Atlantikoko hamalau ibai eta estuarioetan Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak hartzeko dena.</i>

Arauzko baldintza horiek betetzen direla bermatzen da ingurumen-kudeaketako sistemaren eragiketa-kontrolako prozedurak aplikatuz, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak ezarriz, eta prozedura horien ezarpen egokiaren eta prestakuntza-ekintzen eraginkortasunaren jarraipena eta kontrola eginez.

Prozesu horretan, bereziki aipatu behar dira Udaleko langileekin eta zerbitzuen esleipendunekin egiten diren aldizkako bilerak. Denboraldiaren aurretik, denboraldian zehar eta ondoren egiten diren bilera horiei esker, aplikatzen zaizkien baldintzak behar bezala betetzen direla kontrola daiteke.

6. ANEXOAK

6.1 ASPEKTU-METODOLOGIKOAK

NOLA EGITEN DUGU INGURUMEN-ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA ETA EBALUAZIOA

Zarauzko hondartzako Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren arduradunek, aldian-aldian, hondartzan garatzen diren zerbitzuek eta jarduerak sortutako **ingurumen-alderdiak identifikatu eta ebaluatzen dituzte**.

Alderdien identifikazioa, hondartzan garatzen diren jarduerak eta zerbitzuak, eta, horiek sor ditzaketen **zuzeneko nahiz zeharkako alderdi** guztiak kontuan izanik egingo da. Alderdien artean, udal zerbitzuek zuzenean kontrolatzen dituztenak eta erabateko kontrola ez duten zeharkako alderdiak bereiziko dira.

Ingurumenaren gaineko Deklarazioaren xede den IKSren barnean sartzen ez diren zeharkako alderdien artean, **bainurako uren kalitatea** dago. Udalak alderdi honi buruzko informazioa jasotzen du, eta informazio hori jendeari jakinarazten zaio, baina ez dagokio Udalari legeak ezarritako mailak betetzen direla zaintzea.

Zarauzko Hondartzaren Kudeaketa Integralean esanguratsuak diren alderdiak zehazteko, **maila esanguratsu bat ezarri da**; maila hori bi irizpide hauek biderkatzean lortzen da: Magnitude-mailak eta Arriskugarritasuna, ingurumen-alderdi bakoitzari esleitutakoa, egoera normaletan eta ezohizkoetan.

Gerta daitezkeen **istripuetan edo aurreikus daitezkeen larrialdiko egoeretan**, Maila esanguratsua ondoko bi irizpide hauen biderketa gisa balioetsiko da: Gertagarritasuna eta Ondorioen larritasuna. **Zeharkako alderdien** kasuan nahikoa informaziorik ez badago, Magnitudearen eta Arriskugarritasunaren irizpideen ordez, Eragin-maila eta Hobekuntzak egiteko aukera neurtuko dira.


Kasu guztietan ere, irizpide horietako bakoitza 1etik 3ra bitartean balioetsiko da, eta, beraz, Maila esanguratsua 1etik 9ra bitartekoa izango da beti, eta maila txikia, ertaina edo handia izango da, ondorengo taula honetan zehaztutakoaren arabera:

	Maila esanguratsua	
>6	ALTUA	Alderdi esanguratsuak
2, 3, 4	TARTEKOA	Esanguratsuak ez diren alderdiak
1	BAXU	Esanguratsuak ez diren alderdiak

NOLA EGITEN DEN OKUPAZIO-BOLUMENAREN KALKULUA

Okupazioaren kalkuluak barne hartzen ditu: okupazioaren dentsitatea, eguraldia, hondartzaren azalera eta denboraldiaren iraupena. Parametro horiek honela kalkulatu dira:

- ✓ **Okupazioaren dentsitatea** egun eguzkitsuetan okupazioaren dentsitatea maximoa izango da (erabiltzaile bat hondartzaren 4 m² bakoitzeko); egun lainotuetan, egun eguzkitsuetarako kalkulaturako okupazioaren % 20koa izango da, eta egun euritsuetan egun eguzkitsuetarako kalkulaturako okupazioaren % 5 izango da.



- ✓ **Eguraldia:** Egun eguzkitsu, lainotu eta euritsuen kopurua Euskal Herriko Meteorologia Zentroari eskatzen zaizkio. 2023ko datuak dira: eguzkitsuak 37, lainotsuak 41 eta euritsuak 44.
- ✓ **Hondartzaren azalera:** Ministerioko Itsasertzetako Zerbitzutik hartu da: 31.000 m²
- ✓ **Denboraldiaren iraupena:** ekainak 1etik irailaren 30era hartzen da.

Beraz, kalkulua honela egiten da: **Udako erabiltzaile kopurua = (EE x 0,25 + EL x 0,05 + EEu x 0,0125) x HA**. 2023. urtean 2,370.000 izan da.

6.2 INGURUMEN-KUDEAKETAKO JARDUNBIDE ONENAK ETA INGURUMENAREN ARLOKO JOKABIDEA EZAGUTZEKO OINARRIZKO ETA SEKTOREKO ADIERAZLEAK

2018/223 (EB) Erregelamenduak eskatzen du hainbat informazio landu eta jakinarazi behar dela. Horien artean daude oinarrizko adierazleak, hartutako jardunbide onenak eta Administrazio Publikoaren eta Hondakinen kudeaketaren Sektoretako Erreferentziazko Dokumentuen adierazle egokiak.

Europako Batzordeko 2019/61 Erabakiak administrazio publikorako erreferentziazko dokumentua jasotzen du eta Europako Batzordeko 2020/519 Erabakiak hondakinen kudeaketaren sektoreko erreferentziazko dokumentua jasotzen du.

Kasu batzuetan, erabaki horiek proposatzen dituzten hainbat adierazle eta ekintza, ez datoz bat Zarauzko Udalak duen sistemaren ezaugarriekin. Hala ere, saiatu gara atal hau ahal bezain sakon adierazten. Jardunbide onenak adierazteko, Erabaki horien numerazioak mantendu ditugu.

HONDAKINAK

Oinarrizko adierazleak

	2020*	2021*	2022*	2023*
Sortutako hondakinak, guztira (t)	11,64	21,34	18,30	21,98 **
Gaika bildutako hondakinak (t)	6,49	11,35	10,50	3,57 **
Gaika biltzen ez diren hondakinak (t)	5,15	9,98	7,80	18,41
Ontzi hondakinak (t)	2,04	4,69	3,93	3,57
Paper eta kartoi hondakinak (t)	1,91	4,12	3,67	--
Beira hondakinak (t)	2,54	2,54	2,90	--

	2020*	2021*	2022*	2023*
Erabiltzaile kopurua (unitateak)	3.117.500	2.560.000	3.037.500	2.370.000
Hondakin osoak(kg) 1.000 erabiltzaileko	3,73	8,33	6,02	9,27 **
Gaika bildutako hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	2,08	4,43	3,46	1,51 **
Gaika biltzen ez diren hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	1,65	3,90	2,57	7,77
Ontzi hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	0,65	1,83	1,29	1,51
Paper eta kartoi hondakinak (kg)1.000 erabiltzaileko	0,61	1,61	1,21	--
Beira hondakinak (kg) 1.000 erabiltzaileko	0,81	0,99	0,95	--

*Kontuan izan hondakinen datuak zalantzarik ez direla eta hainbat datu ez ditugula eskuratu

** Datu hauetan kartoiari eta beirari dagozkien kopuruak falta dira.

Kontuan hartu diren jardunbide onenak

"3.2.5 Sentsibilizazioa"

Hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko jokabidea sustatzen da.

"3.2.8 Hondakinak prebenitzeko tokiko programak"

Hondakinak prebenitzeko neurriak hartzen ari dira. Adibidez, "Plastikorik gabeko herria" eta "kerik gabeko hondartza" kanpainen barruan egiten diren ekintzak.

"3.2.10 Hondakinak biltzeko estrategia"

Itsas pasalekuan bost frakzio jasotzen dira berezita: beira, ontziak, papera, organikoa eta errefusa.

"3.2.11 Udallerrien arteko lankidetzak"

Hondartzako eta pasealekuko hondakinen bilketa mankomunitate dago.

UR-KONTSUMOA**Oinarrizko adierazleak**

	2020	2021	2022	2023
Ur-kontsumo osoa (m ³)	7.853	7.194	12.817	11.490
Erabiltzaile kopurua (ut)	3.117.500	2.560.000	3.037.500	2,370.000
Ur-kontsumoa(m ³) 1.000 erabiltzaileko	2,52	2,81	4,22	4,85

Kontuan hartu diren jardunbide onenak**“3.9.1 Ur-kontagailuak erabat orokortzea”**

2016. urtera arte, lur azpiko ura kontsumitu zen hondartzako instalazioak hornitzeko. Sistema horrek bere kontagailua zuen. 2017an, lur azpiko ur horien orde, herriko sareko ura erabili zen, baina ezin izan genuen kontsumo hori neurtu, ez baitzegoen kontagailurik. 2019an arazo hori konpondu zen kontagailu bat instalatuz eta, horri esker, hondartzako ur-kontsumoaren jarraipena egin daiteke.

“3.9.2 Ura hornitzeko sistemaren ur-ihesak minimizatzea”

Hondartzako instalazioen kudeaketak eta mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak ahalbidetzen dute iturrietan, sakagailuetan eta ur-hornidurako beste gailu batzuetan izandako akatsen ondoriozko ur-galerak detektatzea eta zuzentzea.

ENERGIA ELEKTRIKOA**Oinarrizko adierazleak**

Energia elektrikoa bakarrik kontsumitzen da.

	2020	2021	2022	2023
Energia osoa (kWh)	36.961	39.564	40.282	39.748
Energia/1.000 erabiltzaileko (kWh/1000 u)	11,86	15,45	13,26	16,77

	2020	2021	2022	2023
Energia berriztagarriak kontsumo osoarekiko (%)	37,0*	37,0*	100 **	100 **
Energia berriztagarriak (kWh)	13.675	14.639	40.282	39.748
Sortutako energia berriztagarria (kWh)	Ez da sortu			

- 2019ko datua (hornitzaileak argitaratuak) ** (Foru Aldundiko erosketak zentralizatuko datuak)

Kontuan hartu diren jardunbide onenak eta sektoreko adierazleak**“3.2.4 Energiaren ikuspegitik eraginkorra den argiteria publikoa”**

Argiteriari dagokionez, kontsumo baxuko sodio bapozko lanparak daude eta fluxua erregulatuta daukate, berezko ahalmena baino potentzia gutxiagoan jarrita daude. Hala ere LED sistema ezartzen joango gara.

“3.2.8 Lehendik dauden eraikin publikoen eraginkortasun energetikoa handitzea, segimenduaren, energiaren kudeaketaren eta portaeraren aldaketa sustatzearen bidez”

Hondartzako ingurumen-kudeaketako sistemak honako hauek zehazten ditu: hondartzaren lokaletako energia-kontsumoen jarraipena, langileen prestakuntza eta sentsibilizazioa, eta energia-sistemen efizientzia hobetzeko ekintzen plangintza.

BIODIBERTSITATEA

Oinarrizko adierazleak

Lurzoruaren okupazioa:

	2019	2020	2021	2023
Lurzoruaren erabilera (m ²) Hondartza	200.000	200.000	200.000	200.000
Azalera artifizializatua (m ²). Malekoia	31.000	31.000	31.000	31.000
Naturari utzitako azalera: biotopoa (m ²)	177.200	177.200	177.200	177.200

Kontuan hartu diren jardunbide onenak

“3.5.1 Biodibertsitatearen aldeko tokiko estrategia eta ekintza-plan bat ezartzea eta aplikatzea”

Iñurritzako Paisaia Natural Babestua Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldeko duna-eremu zabalena eta ondoen kontserbatuena da. Kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, eta sistemaren irismenetik kanpo geratzen da. Hala ere, hondartzaren ondoan dagoenez, hondartzako erabiltzaileen portaerak eragina izan dezake biodibertsitatearen mantentze egokian, eta, beraz, udalak informazio eta sentsibilizazio kanpaina ugari egiten ditu ingurune hori zaintzeko eta errespetatzeko.

“3.5.2 Eratzun urdin-berdeak sortzea”

Zarauzko Eratzun Berde Urdina, Udaleko ingurumen sailak sustatutako egitasmoa da. Udalerria inguratzen duen 11,7 kilometroko ibilbide batek osatzen du eta hainbat interes gune lotzen ditu, besteak beste, hondartzako malekoia eta Iñurritzako



ATMOSFERARA ISURITAKOAK

Oinarrizko adierazleak

Berotegi efektuko gasen isuri osoen kalkulua egiteko pasealekuan eta hondartzan egiten den energia elektrikoaren kontsumoa kontuan hartu da. (konbertsio faktorea 0,459 kgCO₂/kWh, Udalsareako Aldaketa Klimatikoko kalkulu orrian oinarritua).

	2020	2021	2022	2023
BEG isuriak (kgCO ₂ e) (bihurketa-faktorea 0,459)	16.965	18.160	18.489	18.244

Aire isuri osoen kalkulua egiteko (SO₂ eta NO) pasealekuan eta hondartzan egiten den energia elektrikoaren kontsumoa kontuan hartu da. (konbertsio faktorea 0,113 gr SO₂/kWh, eta 0,086 gr NO/kWh dira <http://www.wwf.es> iturritik hartua).

	2020	2021	2022	2023
SO ₂ aire isuriak: (kg SO ₂) (bihurketa-faktorea 0,113)	4,18	4,13	4,55	4,49
NO aire isuriak (kgNO) (bihurketa-faktorea 0,086)	3,18	3,40	3,46	3,42

MUGIKORTASUNA**Kontuan hartu diren jardunbide onenak****“3.3.1 Hiri-mugikortasun iraunkorreko plan bat hartzea”**

Gaur egun, Udala hiri-mugikortasuneko plan bat garatzen ari da. Plan horren irismenean hondartza ere sartzen da; izan ere, desplazamendu asko eragiten dituen elementua da, eta, beraz, eragin handia du udalerriko mugikortasunean. Mugikortasun Plan horretan zehazten diren neurriak Ingurumena Kudeatzeko Sistemari sartuko dira.

KONTRATAZIO PUBLIKO EKOLOGIKOA**Kontuan hartu diren jardunbide onenak eta sektoreko adierazleak****“3.11.1 Ingurumen-irizpideak sistematikoki sartzea kontratu publikoetan”**

Hondartzako zerbitzuak kontratatuzko prozedura guztiek ingurumen-irizpideak dituzte. Gainera, ingurumen-irizpide horiek benetan betetzen diren jakiteko jarraipena egiten da.

	2019	2020	2021	2022
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen ehunekoa, lizitazioen guztizko kopuruarekiko (%)	100	100	100	100
Bikaintasunaren parametro konparatiboa	% 100			

INGURUMEN-HEZKUNTZA ETA INFORMAZIOAREN HEDAPENA**Kontuan hartu diren jardunbide onenak****“3.12.1 Ingurumen-arloko hezkuntza eta informazioa herritarrentzat”**

Ingurumen-kudeaketako sistemaren esparruan, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak planifikatzen eta egiten dira, azken horiek, batez ere, uraren kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa egokia eta ingurumeko biodibertsitatearekiko errespetua sustatzeko.

6.3 2023eko PROGRAMA**1. HELBURUA: pasealekuan sortutako hondakin kopuru osotik, birziklatutako hondakinen ehunekoa handitzea. (alderdi esanguratsua)**

1-1: Itsas ertzeko pasealekuko edukiontzi handiak berritzea.

1-2: Hondartzako sarreretan GFAk jarritako paneletan, hondakinak behar bezala kudeatzeko mezuak zabaltzea.

2. HELBURUA: hondartzaren eta hondartza inguruko eremuaren Natur Balioa babestea (alderdi esanguratsua)

2-1: Biotopora bisita gidatuekin jarraitzea, bai ikastetxeekin eta bai herritarrekin.

2-2: 2023an EBUaren ibilbidea mantentzeko kontratu berria atera.

2-3: Golf inguruko ekosistemen jarraipena egitea

2-4: Biotopoa, bidez kanpoko gunetara ez sartzeko kartelak jartzea

2-5: Itsasoko balio naturalak ezagutarazteko CIMASUB itsaspeko zinema zikloa egitea.

3. HELBURUA: Energia elektrikoaren kontsumoa, hondartza eta pasealekuan murriztea (alderdi esanguratsua)

3-1: Itsas pasealekuko argiteria LED sistemara aldatzeko kontratazioa bideratzea.

4. HELBURUA: Ur kontsumoa murriztea (alderdi esanguratsua)

4-1 Hondartzako kontadoreen jarraipen zorrotza egitea, ur ihesak ekiditeko

4-2 Golf zelaian araztegiko urak erabiltzeko aukera aztertu.

4-3 Hondartzako dutxetan eta hankak garbitzekoan, lur azpiko urak erabiltzeko aukerari berriro heldu.

5. HELBURUA: Hondakinak Hondartzan eta pasealekuan murriztea

5-1 “Kerik gabeko hondartza” kanpaina parte hartzea, besteak beste, zigarrokinak murrizteko balio dezan.

5-2 Sentsibilizazio kanpaina: “Plastikorik gabeko hiria” kanpainarekin jarraitzea. Edateko urarentzako pitxarrak banatzea

5-3 Sentsibilizazio kanpaina: Mikroplastikoen bilketa hondartzan.

5-4: Dunan eta paduran hondakinak biltzeko jarduera egitea herritarren parte hartzearekin. Herriko Arkamurka Natur Taldeak Iñurritzan hezeguneko plastiko eta zaborren bilketa antolatu du.

5-5: Herriko errekek garbitzea, itsasora eta hortaz hondartzara hondakin gutxiago iristeko


6. HELBURUA: zarata murriztea

6.2: Kontzertuetako zarata murrizteko azterlana egitea
7. HELBURUA: Airearen kutsadura murriztea
7-1 Mugikortasuna plana garatzen joatea, bereziki hondartzara joateko oinezko eta bizikleta bidezko ibilbideak hobetzeko.
8. HELBURUA: Herritarren beharrei erantzuna ematea
8-1: Web orriko edukiak egokitzea. Jada martxan dagoen web orri berria egokitzea.
8-2: Informazio Qr kodeen bitartez eskura jartzeko aukera lantzea
8-3 Hondartzako ingurumen kudeaketari buruzko informazio zabaltzea, bereziki EMAS bandera jarrita eta prentsan zabalduta.
9. HELBURUA: GFAren Sistema integralaren bilakaera aztertzea
9-1: GFA-arekin harremana jarraitzea.
10. HELBURUA: Klima aldatetari aurre hartzea
10-1: Urban Klima 2050 erkidegoko proiektuan parte hartzen jarraitzea.
10-3: Aldaketa klimatikoari aurre egiteko PLANA bideratzea

6.4 INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAREN IZENA ETA EGIAZTATZE-ZENBAKIA, ETA BALIOZTATZEAREN DATA

Ingurumenaren gaineko Deklarazio honen ingurumen-egiaztatzailea Aenor Confia S.A., ENAC Egiaztatze Erakunde Nazionalak ES-V 001 zenbakiarekin egiaztatutakoa.

Ingurumenaren gaineko Deklarazioa balioztatze ikuskaritza 2024ko apirilaren 22an egin da. Hurrengo Ingurumenaren gaineko Deklarazioa egiteko epea 2025 urterako finkatu dugu.



AENOR

INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAK EGIAZTATZEKO ETA BALIOZKOTZEKO JARDUEREI BURUZ EGINDAKO ADIERAZPENA

AENOR CONFÍA, S.A.U., -ES-V-0001 zenbakia du ingurumen arloko egiaztatzaileen EMAS erregistroan eta 84.11 "Administrazio Publikoaren jarduera orokorrak", 93.29 "Beste jolas-eta entretenimendu-jarduera batzuk" eremurako ziurtatuta dago (NACE kodea)- honako hau adierazten du:

egiaztatu du, ZARAUZKO UDALA - Udal Zerbitzu Teknikoen Saila enpresaren ingurumen-adierazpenean azaltzen den bezala (enpresaren erregistro-zenbakia ES-EU-000021 da), erakundeak

bete egiten dituela 1221/2009 (EE) Erregelamenduak, erakundeek borondatez ingurumeneko kudeaketa eta auditoretza egiteko Europako sistema batean parte hartzeari buruzkoak, ezarritako baldintza guztiak. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2009ko azaroaren 25ean eman zuten arau hori, eta ondoren 2017/1505 (EB) Erregelamenduaren eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduaren bidez aldatu zen.

Adierazpen hau sinatuta, adierazten dut:

- egiaztatzeko eta baliozkotzeko jarduera egitean, zorrozki bete ditut 2017/1505 (EB) Erregelamenduak eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduak aldatutako 1221/2009 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzak;
- egiaztatzeko eta baliozkotzeko jardueraren emaitzak berretsi bezala, ezerk ez du aditzera ematen ingurumen-arloan aplikatu beharreko betekizunak urratzen direnik;
- erakundeak ingurumen-adierazpenean aipatzen den arloan egiten dituen jarduera guztiei dagokienez, erakundearen adierazpeneko datuek eta informazioak irudi fidagarria, sinesgarria eta zuzena ematen dute.

Dokumentu hau ez da EMASeko erregistroaren baliokidea. Izan ere, 1221/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera eskumena duen erakunde batek soilik egin dezake EMASeko erregistroa. Dokumentu honek ez du berez balio komunikazio publiko independentea egiteko.

Madrilen egina, 2024ko abenduaren 30an

Firma del verificador
AENOR CONFÍA, S.A.U.